

Nire Ekhia

Kaixo Ugaitz izena dut. 18 urteko gazte bat naiz, altua, argal samarra, ile beltzekoa eta begi argiduna. Galiziako arrantzale-herri batean bizi naiz nire gurasoekin eta 8 urteko nire anaia Xubanekin. Ni sendagile izatera nindoan, ikasketetarako guztia prest nuen, baina azkenik, familiaren tradizioarekin jarraitzea erabaki nuen, hau da, arrantzarekin.

Nire familian, nire ama Jaione da sareak prestatzen dituen. Egunero bizilagun guztiekin biltzen da arkupetan sareak egiteko, bizilagun guztiek senarra arrantzalea baitute. Nire aita Zigor arrantzalea da, etxera dirua ekartzen duena, lehengo urtera arte nire aitona Joxeren laguntzarekin; lehengo urtera arte diot, nire aitona joan den urtean hil baitzen. Bera izango da istorioaren protagonista.

Nire aitona oso bihotz onekoa eta bere bibote zuriarengatik nahastezina zen. Arrantzalea zen 15 urte zituenetik eta ordurako bere ama eta bere zazpi anaiak elikatzeko ardura zeukan, aita istripu batean hil baitzitzaion bere arrain-ontziarekin.

Ni berari oso elkartuta nengoen, egunero ikastola amaitu bezain laster bere etxera joaten nintzen, non herriaren goialdean eta itsasoaren parean zegoen. Niri asko gustatzen zitzaidan bere etxea, guztia oroitzapenez betea baitzegoen: arrantzale zeneko argazkiez, itsasoaren eta baleen argazkiez e.a. Batez ere baleen argazkiez betea zegoen; izan ere, nire aitonak oso gustukoak zituen baleak. Guztia zekien haiei buruz.

Bioi gehien gustatzen zitzaigun gela ganbara zen eta bitxikeria gehienak bertan kontatzen zizkidan, nire aitona kuttunak. Horma batean leiho itzela zegoen eta leihoaren parean aulkitxo bat. Nire aitonak orduak ematen zituen bertan, itsasoari begira.

Esan bezala, nire aitonaren zaletasuna baleak ziren. Baina, nik ezagutzen ez nuen arrazoi batengatik, baleek gure itsasoak zeharkatzen zituzten garaian, nire aitona ganbarako aulkitxoan esertzen zen. Arraroa, ordea, zera zen: leihoaren parean zegoela, baina ez zuela bertatik begiratzen, eta hori gutxi balitz, negarrez hasten zela. Niri horrek asko urduritzen ninduen. Izan ere, baleak horrenbeste gustatzen bazitzaizkion

eta gure itsasoak urtean behin bakarrik zeharkatzen zituztela jakinez gero, pozez gainezka egon beharko zukeen. Ez nuen ulertzen berak azaltzen zuen jarrera, baina ez nintzen jarrera horren arrazoia galdetzera ausartzen.

Egun batean ordea, bi aldiz pentsatu gabe, ganbarara igo eta aulkitxoan eserita eta itsasoari begira aurkitu nuen aitona, gehienetan bezala, alegia. Orduan gehiago pentsatu gabe esan nion:

- Aitona, zergatik ez dituzu begiratzen?- minutu batzuetako isilunea egon zen, baina, azkenik erantzun zidan:

- Ugaitz, bizitzan batzuetan, nahi ez dituzun gauzak egin behar izaten dira, askotan familiarengatik. Zu, jaioberria zinenean zure etxean gose ziren, diru falta baitzegoen. Zure aitari eta niri arrantza ez zihoakigun nahi bezain ondo eta zerbait egin behar nuela sentitzen nuen, ezin nuen besoak gurutzatuta geratu, beraz zerbait egin nuen- esan zuen tonu tristean.

- Zer aitona, zer egin zenuen?- galdetu nion, gero eta jakin-min handiagoa bainuen.

- Bada, begira. Egunkarietan, telebistan eta beste hainbat hedabideetan, arrantzuntzi bat irteten zela jakin nuen. Zirudienez bertan dirutza bat ordaintzen zuten. Asko pentsatu ondoren, ez zitzaidan beste aukerarik geratzen. Itsasontzi hura ordea, ez zen arrantzuntzi txiki horietako bat, izugarrizkoa zen, eta arrantzatzeko ez zituzten sareak erabiltzen, arpoiak baizik...

- Aitona, hori al da kontatzeko zenuen guztia? Arrainak arrantzatzeagatik, ez zaitez errudun sentitu. Zer uste duzu, zu izan zarela gizadi guztian zehar, arrain batzuk arrantzatu dituen bakarra? Ez jauna!- esan nion nik kontsolatu nahian.

- Kontua da, itsasontzi hartan arrantzatzen zela, bai, baina ez arraintxoak... baleak baizik!- momentu hartan erori zitzaion lehen malkoa eta bere aurpegiaren itsura tristeago zen pixkanaka-pixkanaka.

Ni hitzik gabe, mutu geratu nintzen. Ezin nuen sinetsi aitonak kontatutakoa. Aitonak arnasa sakon hartu arren, arnasestuka ziharduen, baina halere kontatzen jarraitu zuen:

- Itsasontzi erraldoi hura hartu nuen, eta hainbat ordu igaro ondoren, iritsi ginen. Ozeanoaren erdian, bale multzo bat gugana hurbildu zen. Iristen zen lehenengoa, nire harrapakina izango zen. Arpoia hartu nuen. Eskuak izerdituta eta dardarka nituen, ezin nuen egin, baina bertan egotearen arrazoia gogoratu nuen eta adorez bete nintzen. Nigana hurbildu zenean, arpoia jaurti nion. Ez nintzen inoiz horren gaizki sentitu. Gorriz tindatutako balea babesgabe hark, itsasoaren erdian nola begiratzen ninduen ikusi nuen. Nik hil nuen!- esan zuen malko artean.

Nire aitona gaixoa, lur jota zegoen, baina gutxienez barrena hustea lortu zuen. Barruan, urte askotan zehar eraman izan zuen zama nekagarria, jada gainetik kendu zuen.

- Halere, jada zer egin nuen kontatzen hasi naizenez, itsasontzi hartan, zer bizi izan nuen kontatuko dizut, Ugaitz. Beti ere zuk nahi baduzu-. esan zuen, poltsikotik ateratako musuzapiarekin malkoak lehortu ondoren.

- Aitona ez eduki zalantzarik! Nire belarriak zure istorioak entzuteko prest daude beti-. esan nion kemena emateko asmoz.

- Egia esan behar badut, balea babesgabe hura akabatu nuenean, munduko gizaseme anker, bihozgogor eta krudelena sentitu nintzen. Benetan diotsut, Ugaitz; hura izan zen nire bizitzako unerik gogorrena. Gau hartan, ezin izan nuen begirik bildu, eta ondorioz gaua oso luzea egin zitzaidan. Alde batetik, zutaz behin eta berriz gogoratzen nintzelako, eta bestetik, egin nuen ankerkeriaz benetan damaturik nengoelako. Halere, balea bakar bat hiltzeak kontzientzia lasaitu arazi zidan; izan ere, beste arrantzaleek hogeina eta hogeita hamarna bale hil zituztela kontuan harturik...

Horiek izan ziren, nire aitonaren hitzak. Negarrez zirauen, baina, hitz egiten jarraitzeko adorea bazuen oraindik ere. Betidanik izan baita nire aitona adore handikoa.

- Itzuleran, ozeanoa zeharkatzen ari ginen bitartean, itsasoari begira jarri nintzen. Itsaso-milia asko zeharkatu arren, nekez ikus zenitzakeen baleak, eta ikusten bazenituen ere mespretxuz begiratzen zizuten. Izan ere, bazekiten gu izan ginela beraien senitarteko batzuen eraileak. Halako batean, bidaia hartan egin nuen bihozgabekeriaren hausnarketa egitea pentsatu nuen. Bat-batean eskulekutik aldendu behar izan nuen itsasora ez erortzeko, izan ere zorabiatzen ari nintzela nabaritu nuen. Guztia badakizu zergatik, bale babesgabe hura erailtzeagatik! Halere, hausnarketa egiten

ari nintzen bitartean, gauza batez ohartu nintzen: baleak oraindik ere maite nituela!

Aitonak egin zuenaz damututa eta lotsatuta, niri begiratu eta nigana hurbildu zen, zera esanaz:

- Orain jada badakizu, baina inori ez esatea eskatuko nizuke, batez ere zure gurasoei. Haiek inoiz ez baitzuten ulertu nondik atera nuen hainbeste diru, eta nondik atera nuen kontatu banie ez zidaten diru hori onartuko, baina nik zerbait egin beharra neukan, batez ere zuregatik, zuri handitan ezer ere ez faltatzeko.

- Aitona, ez zaitez horregatik lotsatu. Zuk hori nigatik egin zenuen, eta hori niretzat oso ederra da- esan nion besarkada handi bat ematen ari nintzaion bitartean-. Eskerrik asko, aitona!

- Bai, ikuspegi horretatik begiratuta oso ederra da, Ugaitz. Baina ez al zara konturatzen orain balea gajoei gorroto nautela, eta ondorioz ezin diedala aurpegira begiratu? Hori, baleak betidanik maitatu izan dituen pertsona batentzat oso gogorra da!

Hau guztia entzun ondoren, nik zerbait egin beharra neukala esaten zidan barrenak. Azken finean, nigatik egin zuen guztia eta min hori ezabatzeko eta baleei berriz ere beldurrik gabe begiratzeko, moduren bat egon beharra zegoen. Baina, zer egin nezakeen?

Bi urte igaro ondoren, nire aukera iritsi zen. Vigoko kostaldean hiru urte eskaseko balea txiki bat azaldu zela jakin nuen. Zaurituta zegoen, zirudienez, harkaitz batzuen aurka talka egin zuen. Nire aitonari jakinarazi nion laster batean:

- Aitona, aitona! Berri onak dakartzat zuretzat. Begira, Vigoko kostaldean balea zauritu bat azaldu da, eta zuk senda dezakezu. Berriz ere baleen laguna izateko aukera ezin hobea da!

- Maitea, ezin dut hori egin. Ezin dut beregana hurbildu eta gutxiago berari begiratu- esan zidan goibel-goibel-. Zuk oso ondo dakizu hori ezin dudala egin.

- Baina aitona, balea horrek behar zaitu. Hemen geratuko al zara, bera minez hiltzen ari den bitartean? Zuk guztia dakizu baleei buruz, eta bizitza

salba diezaiokezu! Ez al zara konturatzen aitona? Balea babesgabe eta gajo bat da!- esan nion haserre samar.

Ondorengo minutuetan isilunea izan zen nagusi, eta gainera, igarotzen zen minutu batek ordu bat zirudien. Baina gaitz erdi; izan ere, azkenik erantzun zidan:

- Oso ondo, Ugaitz, arrazoi osoa duzu! Ezin dut hemen besoak gurutzatuta eta eserita geratu. Mugi, lanean has gaitzen! Balea horri oraindik urte asko geratzen zaizkio bizitzeko.

- Oso ondo aitona, goazen, bada. Kostaldean dago, eta ezin du igeri egin- esan nuen urdurituta.

Iritsi bezain laster, nire aitona minutu batzuk balea behatzen geratu zen eta erreakzionatu zuenean, zauria ikustera joan zen. Taldeak egin genituen eta urez betetako ontziak bota genizkion animalari, hil ez zedin, nire aitona iritsi bezain laster agindu zuen bezala.

- Hegatsa hautsita dauka eta gihar batzuk kaltetuta dauzka. Ez utzi ura botatzeari, ez dadila hil!- esan zuen oso urduri aitona, urruntzen ari zen bitartean.

- Itxaron aitona, zurekin noa eta!- esan nion urduri samar (aitona hain urduri ikusteak ni ere urduri jartzen baininduen).

- Ez, orain nator. Olana baten eta burdin eta soka batzuen bila noa, baleari igerileku bat egiteko, eta benda batzuen bila odolustu ez dadin. Zu geratu zaitez bertan eta lastandu ezazu lasaitzeko.

- Ongi da, baina ez zaitez gehiegi urrundu, ni ez bainaiz zu bezain iaioa animalia kontuetan.

Minutu batzuk beranduago bere kamionetarekin etorri zen aitona. Bertan, bizilagun batek utzitako olana izugarri bat, soka batzuk eta burdin batzuk zekartzan. Portuan itsasontzi handiak estaltzeko erabiltzen den olana horietako bat zen. Balearen inguruan ginen pertsona guztien artean, olanarekin, burdinekin eta sokekin, baleari igerileku bat eraiki genion, eta ondoren ur ontziekin bete genuen. Ondoren udaletxeak utzitako garabi batekin, balea igerileku barrura sartzea lortu genuen.

- Orain, berarekin sartuko naiz, eta bendatu egingo dut odoljariora gerasan. Pasa iezazkidazue bendak mesedez. Mugil!- esan zuen aitonak.

Ordu batzuk beranduago, baleak odola galtzeari uztea lortu zuen nire aitonak, eta mina ibitu zion. Zirudienez, animaliarene bizitza jada ez zegoen arriskuan. Halere, aitona gau osoan zehar balea zaintzen geratu zen eta hurrengo goizean telefonoz hots egin zidan:

- Kaixo, maitea, albaitariak deitu dit. Baleari ebakuntza bat egingo dio hegatsa berreraikitzeke eta berriz ere igeri egin ahal izateke. Errekuperatzeko ordea denbora asko beharko du. Hori bai, asko mainatu beharko dugu, espero dut zuk ere laguntzea. Mila esker bilobatxo.

Egun luze baten eta gau amaiezin baten ondoren, balearen hegatsa azkenik sendatu zen, baina hilabete batez atsedean hartu beharko zuen berriz ere itsasoratzeke. Nire aitonak, hilabete osoan zehar berak zainduko zuela esan zuen. Eta hala egin zuen, uneoro bere ondoan egon zen, lastandu egiten zuen behin eta berriz, abestu egiten zion, "nire Ekhi" deitzen zion eta izugarritzko maitasuna hartu zion.

Hilabetea jada igaro zen. Herri guztia bertan bildu zen. Nire aitona izan zen igerilekuko olana puskatzearen arduraduna eta guztiok batera balea itsasora itzuli genuen. Guztioi negar-malkoa erortzen zitzaigun, eta txalo ugariren artean, Ekhi jauzi bat eman eta itsasoan barneratu zen.

- Bere familia itxaroten egongo da!- esan zuen nire aitonak hunkituta-. Bidaia on, laguntxo!

Uda hartatik aurrera, aitonak ez zuen egun hura galtzen; aitzitik, kataloxak eramaten zituen baleak, batez ere Ekhi, hobeto ikusteko. Gainera, orduz gero herri guztia biltzen da portuan, baleek bisitatzen gaituzten garaian hauek bertatik bertara ikusteko, eta beti gure Ekhi maitea ikusten dugu amaieran, hegalkada motel batek nahastezina egiten baitu. Argi zegoen, nire aitonak lehen baleekiko zeukan *beldurra* jada galdu zuela, eta jada alaiago sentitzen zela.

Hasieran esan bezala, nire aitona Joxeren eta nire arteko harremana oso estua zen, horrexegatik, aitona hil zitzaidanean, izugarritzko hutsunea sentitu nuen, niretzat kolpe itzela izan zen. Lehen aitona bizi zenean, behintzat, bere etxeko ganbarara joaten nintzen arratsaldero, eta bertan berak bizi izandako istorio batzuk kontatzen zizkidan. Aitona hiltzean

berriz, jada ez nuen egitekorik, eta arratsaldeak luzeak eta aspergarriak izaten ziren. Ondorioz, ordenagailuan aritzen nintzen jolasten, lagunekin hitz egiten e.a. Aitona hiltzean beraz, bizitza goitik behera aldatu zitzaidan, eta jada, ezer ere ez, ez zen lehengoaren berdina; izan ere, ezin da alderatu ordenagailu batek ematen dizun argitasuna, aitona batek ematen dizun maitasunarekin. Maitasunak ez baitu preziorik!

Joxe, nire aitona maitea, lehengo urtean hil zen bere ohean, bere ohearen parean argazki oso berezi bat zuela. Bera eta bere balea agertzen ziren, marko zoragarri batean sartuta, eta behean idazpuru bat: "NIRE EKHIA".